

## GAIZTO-ZULO, ANBOTOKO SEÑORIAREN BIZILEKUA

LUXIO UGARTE ELORZA

Txikitan (eta ez hain txikitan) kontakizun ugari entzun dugu Anbotoko Señoriari buruzkoak, eta horrelako bat hauxe da (1): (Originalean oñatieraz dago eta hitz batzuei, ondoan, batuazko itzulpena jarri diet): «Oñati'n, bertako artzaiñ askoren artian, oitura bat dau urtero-urtero bildots bat urabarrian (udaberrian), Ama Birjiña Arantzazukoari eruateko (eramateko). Eta horren orde z gero frailliak baskaixa (bazkaria) ematen doste (diete).

Oi bezala, Aloña-mendixan bere artaldia eukan (zeukan) artzain bat badua, bere bildotsa bizkarrian ebala (zuela), eta Geizto-zulo parian xoi la (zijoala), kentzen xaue (diote) bildots ori bizkarretik, nok bera konturatu barik.

Sustauta begiraketan dau (begirutzen du), alde guztietara, nork kendutetseban ikusteko, eta nun ekusten dau Anboto'ko señoria, bildots ta guzti, Geizto-zulo'n ezkutaiten (izkutatzen).

Erdi-negarrez badua artzai gixaju oi Arantzazu'ra eta kontaiten dozte (kontatzen die) frailliai zer pasautzakon (pasatu zaion). Eta aik (haiek) tranpetan zebilelakuan, irriparez esatentsaue (esaten diete): ai! ai! zuk gura dozuna, bildotsik ekarri barik, bazkaixa artzia (hartzea).

«Ez jauna, gura ezpadaue (nahi ez ba dute) ez sinistu, baño egi-egixa da esan dostiana (die-dana)».

Ain gogor berian zeuela (zegoela) artzaiñ oi ikustean, fraillioek ditsue: «Badau hemen adorerik, daukonik, zulora sartu eta onek egixa ditzuen edo ez ikusteko?».

Bai, erantzuten dau batek, baserri batera jauten bazai (ba zarete) eta handik baserritan eukitentuen (eukitzen dituzten) burdi-soka on bat ekarri; neu sartuko naiz, roquete eta estola jantzi eta ixopua eskuan duala, ondo lotzen banaizue gerritik eta besaazpitatik».

Esan eta egiñ; ekarten ditue (dituzte) burdi-soka fuerte eta sendo batzuek eta or dijuaz erdi jolasian fraillioek eta baserritarrok Geizto-zulo'ra.

Jasten da fraillioi (fraide hori) roquete eta estoliaz, artzen dau ixopua ur bedeinkatuan ondo bustita, lotu gogor, esan bezala, eta or dua apurka-apurka zulua bera.


Alako baten goixan egozenak (zeudenak) entzuten daue: «alto! ez geixau (gehiago) sokarik emun», eta au entzutian sentitzen daue (dute) aizebolara batek urteten dauela zulotik.

«Gora» dixo bekuak, eta apurka-apurka dakarte berriz fraillioi. Arriturik geldiketan (gelditzen) dia, bildotsa besa-azpian dauela ikustian. Eta esaten xaue (diote): «Baña egixa da orduan onek esan doskuna?».


«Bai», dixo bestiak, «bera jaitxi naizenian topau dot Señoria, ankalatraba bildotsgaiñian jazarri eta urresko orraizixakin (orraziakin) uliak orresketan. Au ikustian, baster guztiak bustitu ur-bedeinkatuz eta or xoiak (doa) señoriari, tximistak artuta, igesi! Ez al dozue, urten dabenian (atera denean) ikusi?».

«Bera ez dou ikusi; baño bai zuk» alto! «esan dozunian aize-bolara fuerte bat sentiu dou (dugu) urteten».


(1) 1984. ARRIAGA, J. L. V. hor. 32-33.




Irud. 1.— Gaizto-zulo leizearen plano. Bertan ikus dezakegu non diren aurkitutako hiru gurutzeak (1, 2, 3).



Irud. 2. — Sarrerako gurutze birgurutzatua. Planoan, 1 zenbakiarekin agertzen da.



Irud. 3. — Gurutze hau, leize barruan agertzen da. Horman dago zuriz marratua. «Kustodia» baten tankerakoa da. Planoan, 3 zenbakiarekin agertzen da.



Irud. 4. — Gurutze birgurutzatu hau, sarrerako ahoaren behean agertu zen (zihur aski goitik behera erorita). Besoetan gurutzetxo grabatuak ditu. Planoan, 2 zenbakiarekin agertzen da.

«Ba orduantxe urten dau, eta onek egixa esan dauen pruebía emen dakart eta oiñ bazkaixa zorsau (zor diogu)» (2).

Ez da lehenengo aldia izango norbait leize honen bila ibili dena, edo eta behintzat, Aloña mendia gainera gainetik igarotzen den bakoitzean inguruetatik begirada bat egiten saiatzen dena, esanaz: «bada ez bada ere, ia zerbait ikusten edo agertzen den». Gaizto-zulo non dagoen jakitea nahi baldin ba dugu, gainera ipuin honetan esaten denari jarraitu beharko diogu, izan liteke arrazoi pixka bat izatea eta... Bertan esaten digu, leizea jeisteko, sokaren beharra izan zutela fraideek eta artzainek. Honek zera esan nahi du: leizea (sima) zela, edo bestela, Aloñako maldan behera jaitsi zirela Gaizto-zulo aurkitzeko. Errealitatean, gero ikusiko dugun bezala, probabilitate bi hauek egiazkoak direla frogatu dezakegu, zeren eta Gaizto-zulo leize bat bait da, eta gainera, leizearen ahoa, Aloñako aldatz-behera haundi batetan dagoenez gero, sokaren laguntza behar da ahora heltzeko. (Arg. 1-2) Horrela ba, kontakizun hau, leizea non dagoen dakien pertsona batek asmatutakoa dirudi, hau da, nolabait errealitatean oinarritua dago.

Ipuin hau entzun ondoren, Gaizto-zulo, Anbotoko Señoriaren edo Mariren bizilekua aurkitu dela kontatuko dut. Orain arte esan ohi da, bizileku hau ez zela esistitzen edo behintzat ezagutzen, inguruetako artzainen kontu bat zela, etb. Horrela esaten du J. M. Barandiaranek bere mitologia liburuan (3):

Apunté en otra ocasión (Vid. arriba, página 16) una creencia que existe en Oñate, según la cual los religiosos de Aránzazu suben una vez al año al monte Aloña a conjurar a la **Dama de Anboto** que vive en una sima. Para saber qué había de cierto en esta creencia, escribí a mi distinguido amigo el P. Lizarralde, de cuya atinadísima contestación entresaco los siguientes párrafos:

«Es tradición que los Religiosos de Aránzazu han solido conjurar las tempestades desde el Santuario. Pero me dice un buen **gizon** de Oñate que, al observar que dicho conjuro desviaba la tempestad hacia la hondonada de esta villa, suplicaron, no sé cuándo, que en adelante se hiciesen los conjuros en la parroquial, a fin de que se ahuyentase el pedrisco hacia el monte Aloña. Y que hoy así se practica».

«Lo cierto es que todos los años sube un Religioso de esta Comunidad al monte Aloña, y también al de Aizkorri, para bendecir los campos, los rebaños de ovejas, las chozas..., a leer

los conjuros contra las enfermedades del ganado vacuno y lanar y contra las tempestades; mas no a conjurar la Dama de Aloña, la cual ignoramos en qué sima se esconde para fraguar las tempestades (¡!).»

Esaldi hauetan, Arantzazuko fraideek leizea konjuratzera nola joaten ziren agertzen da. Horretaz, idazleak ez daude beti ados, eta Barandiaranek berak bi gauza desberdin esaten ditu (4): «En Oñate, dicen que los frailes de Aránzazu suben una vez al año al monte Aloña a conjurar a la Señora de Anboto que vive en una sima». Baina gero, ohar batetan zera aipatzen du (5): «Estas creencias no se hallan confirmadas por los hechos, puesto que ni el Sr. Cura de Isasondo conjura a la Dama de Muru, ni los religiosos de Arantzazu a la de Aloña». Baina denok dakigu, Inkisizio garaian Arantzazuko Amabirgina, sorginkeriaren aurkako abokatu gorenatariko bat izan zela, eta komentu honetako fraideek, Felipe IIIren esana jarraituz, oso gogor burrुकatu zutela Gipuzkoan, Nafarroan eta Errioxan, sorginkeria guztiak baztertzeko. Horrela bada, garbi uste dut gelditzen dela, Arantzazuko fraideek konjuro eginkizunak egin zituztela historian zehar, Arantzazuko mendietan behintzat, eta frogatzeko hor dago Gaizto-zulo (6). Beste batzuen ustez, «aiuntamentua» joaten zen koba hori bedeinkatzera (7).

Denok dakigunez, Marik, sorginen arteko errekinak edo «maistra»k, izen bereziak hartzen ditu toki desberdinetan. Oñatin, Gaiztoa (8), Anbotoko Señoria, Gorgomendiko Señoria, Doña Urraka, Aketegiko Damia, etb. (9), deitzen zaio, eta Gaizto-zulo bere bizilekuari (10). Marik bi alde dauka: bata ona eta bestea txarra; Oñatiko kasuan alde txarra erakusten du; ez da ongilea, gaizkilea baizik; bere bizilekuan norbait sartzen denean, izugarrizko danbadak edo zaratak (harro guztian entzuten direnak) ateratzen ditu (11). Esan ohi da, Anboton bizitzen baldin ba da, euria ugari izango dela, eta Aloñan bizitzen ba da berriz, lehortea izango dela (12). Suzko globo bat bezala ere ikusi zaio (13).

(4) 1973 BARANDIARAN, J. M., Tomo II, V. hor. 16.

(5) 1973 BARANDIARAN, J. M., Tomo II, V. hor. 16.

(6) 1956 (I) GANDIAGA, V., V. hor. 222. «Fraidiaik gurutziaik bedeinkatu zituen ezker, indar gutxiago dauke sorgiñ ta deabru ta olako gauzak. Sorgiñak eta oiek fraidiaik bedeinkaziñoan asi ziranetik asko kendu dira». (Ignacio Vergara).

(7) 1956 (I) GANDIAGA, V., V. hor. 215.

(8) 1978 Homenaje a D. Carmelo de Echegaray. V. hor. 246.

(9) 1956 (I) GANDIAGA, V., V. hor. 214.

(10) 1978 Homenaje a D. Carmelo de Echegaray. V. hor. 247.

(11) 1978 Homenaje a D. Carmelo de Echegaray. V. hor. 255-256.

(12) 1973 BARANDIARAN, J. M., Tomo II, V. hor. 17, 38.

(13) 1973 BARANDIARAN, J. M., Tomo II, V. hor. 18.

(2) Arriagak ez du esaten kontu hau non edo nondik batua dagoen.

(3) 1973 BARANDIARAN, J. M., Tomo II, V. hor. 38.

Marik, deabruaren funtsioa betetzen zuenez, pertsonaia gaiztoa zenez, bere bizilekua konjurtzeko eta horrela handik bidaltzeko beharra sortu zen. Mariren mitologiari buruz, gauza gehiago ere agertzen dira bainan ez dut uste idazlan hau dana aipatzeko leku egokia denik. Gai hau sakondu nahi duentzat, hor daude J. M. Barandiaranen lanak (Obras completas).

Liburuetan esaten dena frogatzeko, iturrieta-  
ra jo behar izan nuen. Horrela ba, Arantzazuko fraideengana abiatu nintzen, Aita Lasarekin elkar-  
rriketa bat izateko asmotan. Bertan, J. A. Eli-  
zondo (O.F.M.) aurkitu nuen eta berarekin sola-  
sean egon nintzen (14). Bai batak eta bai besteak,  
Gaizto-zulo ezagutzen zutela esan zidaten, eta  
gaztaroan, noiz behinka joaten zirela bertara. Han-  
go artzainek, Gaizto-zulo, Mari Gaiztoaren bizile-  
ku bezala kontsideratzen zutela... Baina nik zal-  
lantzan ipintzen dut leize bera izango den eurek  
ezaugututako Gaizto-zulo eta nik aipatutakoa, ze-  
ren eta ez bait zuten ezagutzen guk bertan aurki-  
tutako gurutzeak.

Beste alde batetik galdetu nien ia zer zekiten  
leizean egindako konjuroei buruz, eta zera eran-  
tzun zidaten: Eurek behintzat ez zutela horrela-  
korik ezagutu eta entzun ere ez; baliteke XVI.  
mendean horrelako zerbait izatea, baina euren us-  
tez harrezkero ez dela konjurorik egin (?) (15).

Bukatu ondoren, Aita Gandiagarengana bidali  
ninduten, eta honek gutxi gora bera berdina kon-  
tatu zidan, eta gehiena «Euskera-1956» aldizka-  
rian argitaratua zuela esan zidan.

Beranduago komentuko artxiboaren arduradu-  
na den Aita Zubizarretarekin egon nintzen eta  
honek emandako informazioa, besteenaren antze-  
rakoa izan zen.

Horrela bada, hauetariko inork ere ez zuen  
ezagutzen Gaizto-zulon konjuroak egin zirenik eta  
zehatz-mehatz non zegoenik ere ez.

(14) Hemen esaten dena grabatua dago eta hau laburpen  
bat besterik ez da.

(15) Azpimarratzekoa dela iruditzen zait. Aita Lasak eta Aita  
Elizondok egin zuten ahaleginak euron garaian egin ziren kon-  
juroen arazoa ezeztatzeko. Berriz, «Euskera-1956»-an, 222 horrial-  
dean, Gandiagak batutako kontakizun batean, hau esaten da:

«Anbotoko Señoria sua ta garra daixola etorten ei zan  
Gorgomendiko Gaiztozulora. Izugarritzko zaratak entzuten  
ei ziran Uribarririk. Kurtzie ipiñi ezkerozkoan ez da en-  
tzuten» (Claudio Zurutuza).

Kontuan izaten ba dugu Aloñako gurutzea 1902an ipini zela  
konjuroen zeregina gertaera honi lotzea ez zait hain ezinezkoa  
iruditzen, eta honela «azken (?)» sorginen kontrako konjuroak  
egin ziren garaia, data honen inguruan ibiliko litzateke (1900)  
eta ez Aita Lasak eta Aita Elizondok esaten duten urtetan  
(XVI. mendean).

Herriko jendeak ere, gauza berdintsuak esa-  
ten ditu; adibidez, hona hemen Trini Uriartek,  
76 urtekoak eta gaztaroan Jaturabeko baserrian  
(Araotz-Oñati) bizi izandakoak, honi buruz zer  
esaten duen:

«Anbotoko Señoria gaiztua zan, Infernuak bial-  
dutakua, ill eta atzera (ostera) etorritakua».

Trinik ere, ez zuen konjurorik ezagutzen. Bes-  
te alde batetik, zalantzan jartzen zuen Mariren  
existentzia. Honela dio:

«Ez dot ezagutu; entzueria bakarrik; bizi zan  
edo ez, ezin zan jakin. Entzun bai, entzueria haun-  
dixa, baina sekula ez geben ikusi; nik uste dot  
inork ez ebela ikusiko, esaera bat izango da hori»  
(Urria-1984).

Martina Ugarte, Arrikrutzen (Arantzazu-Oñati)  
jaioa, 77 urte. Martinak ere, besteak esandakoa  
errepikatzen du, hau da, ez duela inoiz ere ez  
horrelako konjurorik entzun edo ikusi; bai, or-  
dea, beste konjuro mota batzuk:

«Fustuixa (trumoia) entzuten zanian, harrixa  
ez botateko eitten zian konjuroak» (Urria-1984).

Eta goazen bada, bizileku hori non dagoen eta  
nolakoa den kontatzera. Aurkikuntza hau, Aloña-  
mendiko Espeleologia Taldeari sor zaio; 1983ko  
maiatzean Aloñako iparraldean prospekzio bat  
egiten ari zirela, Gorgomendi eta Buetraitz men-  
dien artean leize bat aurkitu zuten; arteka bate-  
tan dago eta Oñatitik ikus daiteke (Arg. 1) (16).  
Zaila da bertara heltzea; malda arriskutsuan da-  
go kokatua eta sokak behar dira hara heltzeko  
(Arg. 1).

Mariano Ansotegik zera esaten du Gaizto-  
zulari buruz (17).

«La cueva de Gaizto-zulo en la cima de Alo-  
ña, es de índole muy distinta de las mencio-  
nadas; consiste en una hendidura profunda y  
vertical abierta entre las rocas, muy conocida  
de las aves de rapiña del lugar, que han esco-  
gido aquel antro tenebroso para lugar de refu-  
gio y guarida. No nos parece infundado el pa-  
recer del reputado Serapio Múgica, de que  
existieran en la base de la gruta, grandes can-  
tidades de guano, que dados los medios que  
decía existen, podrían ser explotados con pro-  
vecho».


Gai honi buruz, beranduago ere (1921) gauza

(16) Mapan aurkitzeko datuak, hauek dira: Herria: Oñati;  
Koordenadak: I.G.C. planoan, U.T.M. 1:5000; Herria: 2K 113-04;  
Luzera: X=549.418. Latitudea: Y=4.760.800. Z=1.170 itsas-gain.  
Aloña mendia.

(17) 1918 ANSOTEGUI, M., V. hor. 18.



Arg. 1. — Gaizto-zuloko leizea. Aloña mendiko maldan behera kokatua.



Arg. 2. — Gaizto-zulo leizeko ahoa. Barrutik kanpora ikusia.

berdintsua esaten du (18): gure ustez, Anso-tegik aipatzen duen tokia, ez litzateke Gaizto-zulo izango, beste zuloren bat baizik, zeren eta, Aloña-mendi Espeleologi Taldeko partaideek inspektionatutako zuloan ez bait zegoen perusitsik (ez horrelako pilarik behintzat).

Leizearen sarrera, lau metroko jauzi batekin hasten da. Maila horretan, 2 metro zabal eta

1,5 m. gorako aho batekin jarraitzen du eta ondoren 25 m. luzera eta 10 m. gorako gela bat zabal-tzen da.

Sarreran, lau metroko jauzia jaitsi baino lehenago (ikus Irud. 1, zk. 1) burnizko gurutze berezi bat (birgurutzatua) agertzen da (ikus Irud. 2 eta Arg. 3) haitzartean sartua. Buruak eta besoek, bukaeran, gurutzetxo bana daukate. Gurutzearen besoak forjaz josiak daude, baita gurutzetxoenak ere. Bere neurriak hauek dira: 40 zm. luzera eta 55 zm. zabalera; besoen sendoera 5 mm.koa da.

[18] 1921 ANSOTEGUI, M. (O.F.M.), hor. 92-94. Aránzazu, zk. 4, Oñate-Aránzazu.



Arg. 3. — Gaizto-zuloren sarreran, ahoaren ertzean kokatua dagoen gurutze birgurutzatua.

Jauzia igaro ondoren, hau da, beheko mailan, beste gurutze bat aurkitzen dugu. Hau, goitik eroriko zela uste dugu, zeren eta ez bait zegoen lur-rean kokatua, eta gainera ezkerreko besoa hautsia zegoen. Gurutzea, goikoa bezelakoa da bere gurutzetxo eta guztiz (ikus Irud. 3) baina zaharra goa ematen du. Buruko aurrekaldean bi irudi ikus ditzakegu grabatuak: goialdean dagoena, gurutze latinoa da; bigarrena eta bere azpian dagoena, bost izpiko izar baten tankerakoa da (Pentalfa) (19). Irudi hau sarritan agertzen da Euskal Herriko hilarrietan (20). Buruaren atzekaldean beste gurutzetxo edo itxoroski bat dauka grabaturik. Eskubiko besoaren erdialdean, beste gurutzetxo bat eta bestekaldean itxoroskia ikus ditzakegu. Gurutzea guztiz okertua dago, bai beheko aldean, bai oina eta goiko aldean (burua) ere (ikus Irud. 3, eskubiko xehetasuna). Bere neurriak hauek dira: 67 zm. luzera eta 30 zm. (beso bat) zabalera: sendoera 10 mm. da. Burni forjatuz egina dago eta eskuz landua dirudi.

Leizean zehar abiatzen ba gara, beste gurutze batekin topo egingo dugu (ikus Irud. 1, Zk. 3). Kobaren eskubikaldean, ia geure begien parean, zazpi besoko gurutze edo kustodiaren tankerako marrazki bat ikus dezakegu (ikus Irud. 4 eta Arg. 4) (21). Karez egina dagoela dirudi. Oso ongi dago

(19) 1950 LIZARRALDE, A., V. hor. 485 Arantzazuko Harma-  
rriaren osagai bat, sei izpiko izarra da.

(20) 1970 BARANDIARAN, J. M., V. hor. 92-93 eta 107tik  
196ra.

(21) 1950 LIZARRALDE, A., V. Liburuaren azaleko irudia.  
Arantzazuko Amabirjinak lepotik zintzilik daraman gurutzea izan  
daiteke.



Arg. 4. — Leize barruan, paretan marraztua dagoen gurutzea edo kustodia.

xurgatua eta zurizka kolorezkoa da. Goiko, esku-biko eta ezkerreko besoak besteak baino txikiagoak dira; oinean alderantziz, zabalkune bat nabaritzen zaio, oinarria balitz bezala, Honi buruz ezin dezakegu esan kustodia bat denik, zeren eta besoak bait ditu, gurutze latinoak eta gurutze itxoroskiak bezala, eta gainera ez bait zaio ongi nabaritzen kustodien berezitasunak (buruaren erdian izaten duten hutsunea eta inguruan izaten duten izpitxoak, etab.). Gurutze honen luzera 45 zm. da.

Hilarrietan agertzen diren gurutzeei begirada bat ematen ba diegu, honetaz konturatzen gara: hilarrietako gurutzeak eta Gaizto-zulokoak ba dutela zer ikusirik, batez ere gurutze birgurutzuak, gurutze itxoroskidunak eta bost izpiko izarrak bietan sarritan agertzen direlako (22) (23).

Idazlan honetan aipatutako datuekin bakarrik, nere ustez, ez da posiblea konklusio batzuetara heltzea, kate maila bat falta zaigulako; hau da, alde batetik leize hau Gaizto-zulo dela ez dago zalantzan ipintzerik, zeren eta kontu zaharretan agertzen den deskribapena nahiko ados bait dago nik egindakoekin, baina beste alde batetik datu historikoen ezarekin topatzen gara. Badakigu leize horretan konjuroak egin direla, eta hori frogatzeko hor daude hiru gurutze hoiek, baina ez dakiguna zera da: nork edo nortzuk egin zituzten eta noiz. Bai, Gaiztozulo dagoela frogatu da baina barruko misterioak bertan jarraitzen du eta berarekin Anbotoko Señoriarena.

Donostia, Azaroa, 1984

#### OHARRAK:

- Eskerrak ematen diet Aloña-Mendi Espeleologiako Taldekoei (A.M.E.T.) lan hau egiteko utzi didaten datu-gatik eta emandako laguntzagatik.
- Idazlan hau egiteko erabili dudak krokisak eta argakiak A.M.E.T.enak dira.
- Leize barruan aurkitutako burnizko gurutzea (irud. 4), A.M.E.T.en eskuetan dago.

#### BIBLIOGRAFIA:

- 1918 ANSOTEGUI, M. *Descripción topográfica de Aránzazu*. «Egile ugari, Arantzazu». Ed. Aránzazu. Bilbao.
- 1921 ANSOTEGUI, M. *Aránzazu y sus alrededores - Notas espeleológicas*. «Egile Ugari, Arantzazu». Ed. Aránzazu.
- 1984 ARRIAGA, J. L. *Euskal Mitología*. Ediciones Mensajero. Bilbao.
- 1973 BARANDIARAN, J. M. *Obras Completas - Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. Tomo I eta II. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- 1970 BARANDIARAN, J. M. *Estelas funerarias del País Vasco (Zona Norte)*. Ed. Txertoa. San Sebastián.
- 1956 GANDIAGA, V. *Arantzazuko Folklore-gaien biltzeaz*. «Euskera» (I). Bilbao, Euskaltzaindia. Hor. 206-232.
- 1976 GARMENDIA LARRAÑAGA, J. *De etnografía vasca (cuatro ensayos)*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. San Sebastián.
- 1928 EGILE UGARI. *Homenaje a D. Carmelo de Echegaray*. Excma. Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián.
- 1950 LIZARRALDE, A., O.F.M. *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*. Aránzazu. Oñate.
- 1971 PEÑA SANTIAGO, L. P. *Arte Popular Vasco*. Txertoa. San Sebastián.

[22] 1976 GARMENDIA LARRAÑAGA, J., hor. 90.

[23] 1971 PEÑA SANTIAGO, L. P., hor. 315 (cruces), 319 (símbolos astroláticos).



### Laburpena

Oñatiko Aloña-mendian leize berezi bat aurkitu da. Bere barnean, burni forjatuz egindako bi gurutze topatu dira eta baita «kustodia» baten irudia ere, horma batetan margotua. Aurkikuntza honekin, Anbotoko señoariaren (sorgiñen maistra eta mitologia ugariaren iturri, Euskal-Herrian zehar)ren egoitzaren existentzia egiaztatzen da. Gure herriko ikertzaile ospetsuenak zalantzan ipintzen zuten egoitza honen izatea. Barnean aurkitutako gurutzeak, bertan bizi ziren sorgiñak uxatzeko egindako konjuro edo exorzismoei buruz hitzegiten dute. Herriko jende batzuek diotenez (kontuak), Arantzazuko fraideek edo beharbada Oñatiko apaizek egiten zituzten konjuro hauek.

### Resumen

Con el hallazgo de una sima situada en el monte Aloña (Oñati), con dos cruces de hierro forjado en su interior, y una figura de una custodia pintada en una de sus paredes, se ha podido constatar la existencia de la «residencia» de la Dama de Anboto, maestra de las brujas y poseedora de una amplia mitología en todos los confines de Euskal-Herria. La existencia de esta morada era puesta en duda por los más prestigiosos investigadores de nuestro país.

A su vez, las cruces halladas en su interior dan a entender que en su día se llevaron a cabo conjuros o exorcismos para ahuyentar de la cueva a las «sorgiñas» que se albergaban en ella, conjuros que según algunas versiones (cuentos) populares, eran llevados a cabo por los frailes del monasterio de Arantzazu o quizás por los curas de la villa de Oñati.

### Resumé

Avec la trouvaille d'une gouffre placée au mont Aloña (Oñati), avec deux croix en fer forgé à l'intérieur et une image d'un «ostensoir» peint dans un mur on a pu constater l'existence de la demeure de la Dame d'Anboto, maîtresse des «sorgiñak» (sorcières), et qui possède une nombreuse mytologie dans chaque coin d'Euskal-Herria. L'existence de cette «demeure», était mise en doute par les plus prestigieux investigateurs de notre pays.

Les croix trouvées à l'intérieur, nous parlent des conjurations ou exorcismes qu'ont été réalisés pour éloigner les «sorgiñak» qui habitaient dedans, conjurations que selon quelques versions populaires, étaient réalisés par les moines du monastère d'Arantzazu ou peut être par les prêtres de la ville d'Oñati.